

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KANTUA 2020ko OTSAILAren 25a

2020ko OTSAILAren 25ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **Kantu** espezialitatean.

Maite Arruabarrena eta Ana María Sánchez espezialitate irakasleek parte hartuko dute Itziar Barredo eta Javier Pérez de Azpeitia erreperitorio pianistekin eta Musikeneko kantu ikasleekin batera.

Nori zuzendua?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten kantu ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten harpa ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldira etorri ahal izateko ezinbestekoa da **erreserba aurrez egitea**, gure webgunean eskura duzen **izen-emate orriaren** bitartez.

Jardunaldiaren helburua

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta bertaratzen diren irakasleei goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta erreperitorio egokiari buruz informazioa ematea.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek izango duten ikasketa planari buruzko informazioa ematea

Lan-egitasmoa

10.30-11.30: Jardunaldiaren aurkezpena, kantu espezialitatearen ikasketa planari, berau osatzen duten irakasgaiei eta irakasleei buruzko informazioa, sarrera proben inguruko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

Musikeneko irakasleek eta kantu errepertoristek **Musikeneko ikasleekin** lan saioa:

11.30-13.00: Ana M^a Sánchez eta Itziar Barredo

Musikeneko kantu irakasleek eta errepertoristek **ikasle aktiboekin** lan saioa:

13.00-15.00: Ana M^a Sánchez eta Itziar Barredo

Atsedena

Musikeneko kantu irakasleek eta errepertoristek **Musikeneko ikasleekin** lan saioa:

15.30-17.00. Maite Arruabarrena eta Javier Pérez de Azpeitia.

Musikeneko irakasleek eta kantu errepertoristek **ikasle aktiboekin** lan saioa:

17.00-19.00. Maite Arruabarrena eta Javier Pérez de Azpeitia.

Ikasle aktiboek arren eskatzen zaie izen-ematea egiterakoan proban joko dituzten obrak zehaztea, eta ate irekien egunean bertan partituren kopia bat ematea.

2020ko ekainean sarrera proba egingo duten ikasleak entzungo dira lehendabizi.

Non:

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia
Europa plaza, 2.
20018 Donostia-San Sebastián
Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.net
Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia jperez@musikene.eus